

Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2005eko irailaren 2a / Gehigarri berezia



Ziztu bizian
gozatzeko
jaiak

ANDRAMAIXAK 05


ARGAZKIA: ARETXAGAZETA

IOSU

harategia • taberna

Urdaitegia-gozotegia • Kroasantegia • Gertatutako janariak

Mitarte 1 • ARETXABALETA • Tel. 943 77 03 08



Lasaitasuna eta giro ona Andramaixak ospatzeko orduan

Ume, gazte zein nagusiek gogotik bizi izan zituzten herriko jaiak. Antzerkiak, musika, kirolak eta gehiagò izan zuten gozatzeko; aldarrikapenak egiteko tartea ere egon zen.

Umeek plaza inguruan ospatu zituzten jaiak, gazteek txosna-gunean eta nagusiek kalean gora eta behera. Izan ere, denek izan dute zer ikusi Andramaixetan.

JAI BENETAN LASAIK

Lasaitasuna izan zen nagusi jaietan, eta aldarrikapenentarako tartea ere egon zen; izan ere, Aretxa plataformaren egoera salatu zuten Ikurrinaren agurrean. Aretxabaleta Abesbatzak, bestalde, ezin etorrita geratutako guztiak izan zituen gogoan pregoian. Agustindar elkarteak pozik hartu zuten Udalak eta herritarrek egin zioten omenaldi apala. Kirolek zerikusi handia sortu zuten, bai 67. Txirrindulari Lasterketak, bai pilota partiduek; eta sokamuturrak susto galanta eman zigun. Kontzertu guztiek ez zuten jendetza erakarri, baina batzuek plaza bete egin zuten.




EHUN URTE OSTEAN, OMENALDIA Agustindar elkarteak 100 urte bete ditu Aretxabaletan, horietatik ia erdia hezkuntzan lan eginez. Eskerrak eman guran, Udalak omenaldi apala eskaini zion Andramari egunean. Meza ostean, Agustindarren komentura hurreratu ziren udalbatza zein herritarrek, eta mojek eskerrak eman zizkieten guztiei.



Aretxabaleta Abesbatzak eman zien hasiera jaiak; Karmelo Olabek egin zuen agurra eta Xabier Irurek bota zuen etxáfuegoa.



ANTZERKIAK ETA MUSIKA Ume zein nagusiendako egon ziren antzerkiak eta herritarrek ere hartu zuten parte, beharko hartu gainera! Musikak ere une bikainak eskaini zizkien bertaratutakoei: Marmara Dixie taldeak New Orleansko jazza ekarri zuen eta Alam Biquek gaita soinuak, baita keimada dastatzeko aukera ere.



**ILE APAINDEGIA
ESTETIKA
SOLARIUMA**

- Laser bidezko depilazioa diodoekin
- Azken belaunaldiko laserra
- Tratamenduak medikuek bakarrik egiten dituzte

Loramendi 10 • Tel.: 943 77 01 26 • ARETXABALETA


LEIBAR arrandegia

Mitarte Kalea 1
Tel.: 943 77 13 79

Loramendi 1
Tel.: 943 79 18 33

Aretxabaleta





67. Txirrindulari Lasterketa jokatu zuten, eta txirrindulariek giro bikaina sortu zuten Durana kalean. Unai Elorriagak irabazi zuen.




Presoak ere izan zituzten gogoan jaietan: bazkaria eta manifestazioa egin zuten.



GAZTE EKIMENA INDARTSU Txosna-guneko ekitaldiak Gazte Ekimenak antolatu zituen, baita koa-drilen eguneko jokoak ere Kultura Sailaren laguntzarekin. Gazte ugari hurreratu zen txosnetara eta ederto ospatu zituzten jaiak makarroi-jana zela, lasterketak zirela... Bestalde, abeslari guztiak ez dau-dela OT-n erakutsi zuten Andramari egunean egindako karaoke eta play-back saioek.



KOADRILEN EGUNA Urtero legez, barra-barra hurreratu ziren herriarrak paella jatera. Inor lo gera ez zedin Txan magoak gogoz jardun zuen lanean, eta ume zein nagusien atenzioa lortu zuen. Ilunkerako buruhandien kalejirak ipurdi bat baino gehiago mindu zuen.



Mobiliario
ARENAZA

Bizkaia 1 ARETXABALETA Tel.: 943 79 08 07

Altzariak

Diseinua

Apainketa



Aretxabaleta okindegia

*Basaben eta Loramendin
gertu eta fin!*

Basabe 2. Tel. 943 77 00 81
Loramendi 6. Tel. 943 77 17 19



GUUREA

TABERNA

Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

Urlatik

LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko irailaren 2a / Gehigarri berezia



Zahar eta gazte,
Gatzagako jaiak
erre arte

ANDRAMAIXAK 05

ARGAZKIA: AINTZANE AGIRRE



Ondo pasau Andramaixak!

Gure Ametsa

Ezkontzak
Jaunartzeak
Enpresa bazkariak
Euskal janari tradizionala

Tel. eta faxa: 943 71 49 52
LEINTZ GATZAGA

ALKATEARENAGURRA/ Joxerra Perez

urten ere
iritsi dira
Andra-
maixak.

Urtero bezala
oporretako buel-
tan, indarberritu-
ta eta lanean
hasteko animuaz.
Behintzat badaki-
gu oraingo lanak
jai giroan ospatu-
ko ditugula,

guztion arteko harremanak sendotu
nahian. Hori da, behintzat, Udal korpo-
razioa osatzen dugunok nahiko genuke-
na, Gatzagako jaietan denok ongi pasa-
tzea. Gure azkenaldiko lana hauxe izan
da: jaiak prestatzea. Laster beste lan
batzuk hasiko dituzte gure herriko
kaleetan, eta lan horiei pazientzia apur
batekin aurre egitea eskatu nahi genie-
ke gatzagarrei. Lan horiek direla-eta
kaleak zulatuko dituzte, eta ondo dakigu
horrek eragozpen batzuk sortuko dituela
herritarren eguneroko jardunean.
Denon onerako direnez ulertuko duzue-
lakoan, ondo pasa Andramaixak.



JAIETAKO EGITARAUA

Eguaztena, 7

18:00 Jaien HASIERA. Raffleren Ezkila emanaldia eta etxafuego eta bonba japoniarrak.

19:00 Dorletako Santutegian NOBENA, Eskoriatzako parrokiako abesbatzarekin. Ostein, gazta eta ogia..

Eguena, 8

11:30 Otxandiarrei ongietorria.

12:30 Dorletako Santutegian MEZA NAGUSIA, Eskoriatzako Abesbatzaren partaidetzarekin.

17:00 Otxandiarren eta gatzagarren arteko LEHIA:

- Pilota partiduak
- Sokatira



UMEENDAKO JOLASAK

- Txinga probak
- makila probak

20:00 DANTZALDIA Txinparta taldearekin. Afuldu eta gero dantzan jarraituko dugu.

Egubakoitza, 9

09:30 Leintz Gatzagako 27.

Txirindulari LASTERKETA.

11:00 Kulki (arrantzaleen joko eta jolasak egingo dituzte).

12:30 MEZA Santua Dorletan.

16:30 Itsasminez TXOTXONGILO taldea.

20:00 Karra Elejalderen ikuskizuna.

23:00 ROCK kontzertua:

- Arian Rock
- 23F
- Show Business
- Malenkonia

Zapatua, 10

10:30 Etxafuegoak eta BONBA japoniarrak.

11:00 Gorritiren eta bere animalien show-a (pony-ak, zekorrek, basurdeak...).

12:30 Arrasateko GAITARIEK alaituta, kilikiak eta erraldoiak ibiliko dira Gatzagako kaleetan.

16:00 Mus Txapelketa.



MUS TXAPELKETA

16:00 Umeendako jolasparkea.

20:00 Dantzaldia Haitzama taldearekin.

21:00 Herriko pilotalekuan herri AFARIA.

23:00 Dantzaldia Haitzama taldearekin.

Domeka, 11

11:00 Kilometroen barruan, Plater Tiroketa Txapelketa, Venta Frian. Txapelketa goiz eta arratsalde izango da.

12:00 Martxelekin, KALEKO magia ikuskizuna.

12:30 Meza Santua Dorletan.

16:00 Trialsin saioa.

17:30 Pilota partiduak.



Gozatu Andramaixak!

LABIDEA



San Migel plaza 1, 3 20530 Leintz Gatzaga
Tel.: 943 71 47 92



JAKiON

Debagoienako baserriko barazki eta fruta kontserbak

ONDO PASA JAIXAK!

JAKION S.L. • San Migel plaza 4 etxabea • 20530 Leintz Gatzaga
Tel.: 943 71 46 86 • Faxa: 943 71 30 22 • E-posta: jakion@euskalnet.net



KULTURA

Karra Elejaldek film emanaldia egingo du, eta galderei erantzun

Gatzagarrek 'Torapia' filma ikusi ahal izango dute, eta aktoreak azalpenak emango ditu gero


XABIER URTZELAI

Egubakoitz ilunkeran Karra Elejalde aktorea izango da Gatzagan; herriko jaietarako ikuskizun berezia antolatu gura izan du, ez da bakarriketara mugatuko.

Aurtengo Gatzagako jaietan hainbat ikuskizun izango dira (Martxelen magia, arrantzaleek egiten zituzten joko eta jolasak, herri kirolak...). Baina, Karra Elejaldek herrian egingo duen ikuskizunak piztu du interes handiena. Maiatzean estreinatu zuten *La kabra y Miss Yoe* antzezlanarekin dabil Karra Elejalde buru-belarri lanean, eta lan hori irailaren 23an egongo da ikusgai Ermuako Kultura Astean.

IKUSKIZUN BEREZIA

La cabra tira al monte antzezlanean eta *Airbag* filmean ikusi dugun aktoreak ondo ezagutzen ditu Gatzagako jaiak, eta joan den urtean aurtengo jaietarako zerbait



Basilio Hurtado (Karra Elejalde), *Torapia* filmeko pasarte batean.

berezia egiteko konpromisoa hartu zuen; eta hitza bete egin behar. Bazirudien Karra Elejalde bakarriketara umoretsu bat egiteko asmoarekin etorriko zela, baina aktoreak zerbait bere-

zia egin gura izan du. Dakigunez, 2004an zuzendu zuen *Torapia* filma emango du gatzagarrendako. Pelikula amaitutakoan filmean ikusitakoaren gainean egingo du berba. Gainera, Karra

Elejaldek bakarrik ez, herri-tarrek ere parte hartu ahal izango dute berbaldi horretan, eta ikusleek film horren gainean izan ditzaketen zalantzak argitzen ahaleginduko da aktorea.

HAINBAT ZAILTASUN

Gatzagarrek ondo dakite Karra Elejalderen bakarriketara batekin ez zirela aspertuko, baina film emanaldia ere erakargarria da. Horrek, baina, buruhauste

bat baino gehiago sortu die jaiak antolatzen ibili direnei. Kontua da Karra Elejaldek filma zinema formatuan daukala, eta pelikula hori eskaini ahal izateko aparatu berezia behar dela, zinemaskope izenekoa. Hori lortzeko ahaleginetan ibili dira buru-belarri Udalekoak; izan ere, aparatu hori alokatzea ez da merkea.

FILMAREN SINOPSISIA

Basilio Hurtado (Karra Elejalde) lanerako bizi da, eta herritar axolagabeen poltsikoak hustea da bere lanbidea. Lan horrek, baina, oraindik ez du behar beste fruitu eman, besteak beste, Basilio ez delako batere abila, eta aukera guztiek ihes egiten diotelako. Diamantezko lepoko bat errekupe-ratzeko sartuko da eroetxe batean, eta dakien guztia egin beharko du bere helburua betetzeko. Gainontzeko gaixoak kontrario gogorak izango dira, baita medikuak ere. Hala, Basilio Hurtadok terapia baino zerbait gehiago behar izango du, *torapia* izango da irtenbidea.

Andramai jai zoriontsuak !!

sormen ○ ○ ○

DISEINU INDUSTRIALA
DISEÑO INDUSTRIAL
INDUSTRIAL DESIGN

GATZA-GAIN Jatetxea

- ◆ Plater konbinatuak
- ◆ Ogitartekoak
- ◆ Espezialitateak:
Baserriko oilaskoa
Etxeko txorizoa eta okela ekologikoa

943 71 40 05 LEINTZ GATZAGA

Ondo ibili Andramaixetan!



*"Leintz Gatzagako Udalak
Andramaixa zoriontsuak
opa dizkizue gatzagar guztioi"*